R. GOSCINNY **Asterix** A. UDERZO

# IDEFIX®

## ETA MENDERAKAITZAK

### GALIAR LURRINA

Testuak: **L. d'Andréa - P. Clerc - O. Serrano**

Marrazkiak: **F. Mancuso**




SALVAT

GOSCINNYK ETA UDERZOK
AURKEZTUTA

# GALIAR LURRINA

Testuak: **L. d'Andréa - P. Clerc - O. Serrano** Marrazkiak: **F. Mancuso**



SALVAT



K.A. 52. URTEAN GAUDE. ERROMATARREK LUTEZIA OSOA ARMAZ HARTUTA DAUKATE… OSOA? EZ! IDEFIX BURU DUELA, LUTEZIAKO ANIMALIA MENDERAKAITZEN BANDA BATEK ORAINDIK ERE BURUA MAKURTU GABE EUSTEN DIE INDARREZ SARTU NAHI DUTENEI. ETA BIZIMODUA EZ DA BATERE EROSOA LUTEZIA ERROMATARTU NAHI DUTEN LABIENUS JENERALA ETA HAREN TXAKUR TALDEARENTZAT…



**IDEFIX,** ABENTURA HAUETAKO HEROIA, ARGIA ETA BIZIA DA, USAIMEN FINEKOA. MENDERAKAITZEN BURU, LUTEZIA ERROMATARTU NAHI DUTENEN AURKA DABIL BORROKAN. GAUZA BAKARRAK ATERATZEN DU BERE ONETIK: TXIKIA DELA ESATEAK!



**TURBINE** LUTEZIAKO TXAKURRIK BIZKORRENA DA! LAGUNTZEKO PRESTUTASUN HANDIA BADU ERE, ZORITXARREZ, ESAN ORDUKO AHAZTEN ZAIZKIO IDEFIXEK AZALDUTAKO ASMO GUZTIAK …



**HARAKIX** TALDEKO INDARTSUA DA. ERROMATAR TXAKUR TALDEEN AURKA OLDARTU ETA AIREAN BOTATZEA DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIONA! TOLOSARRA JAIOTZEZ, OILASKIX ETA ARDIKINE HARAKINAK DITU NAGUSI, ETA HAIEK EGINDAKO LUKAINKEKIN BURUA GALTZEN DU!



**BALENTINE** KATEME ASKEA DA, KONFIANTZA HANDIKOA ETA ZIRIKATZAILEA. LUTEZIAKO TXOKO GUZTIAK EZAGUTZEN DITU, ETA ATZAPAR ZORROTZAK ATERATZEN DITUENEAN, ERROMATAR TXAKURREK GORRIAK IKUSTEN DITUZTE!



**GAUTXORIX** HONTZA AMNESIX DRUIDAREKIN BIZI DA BASOAN, ERROMATARRENGANDIK IHESEAN. IKUSI ETA IKASI, NAGUSIAREN ANTZERA DRUIDATZAT DU BERE BURUA. EDABEAK PRESTATZEKO OSAGAIAK NAHASTU ARREN, SEKULA EZ DU DESIRATUTAKO EMAITZARIK LORTZEN!



**ASMATIX** USO ZAHARRA LUTEZIARRA DA. GALIAR GUDUETAKO BETERANOA IZAKI, CAMULOGENO GALIAR BURUZAGI GARAITUARI MEZUAK ERAMATEN ZEBILELA ZAURITU ZUTEN. LUTEZIAREN OROIMEN BIZIA, BERE JAKINTZA GUZTIA PASATZEN DIE MENDERAKAITZEI. ETA, NOLA EZ, KALEAN USO, OGIA GOXO! EZIN EZETZIK ESAN LURRERA BOTATAKO OGI-PAPURREI!

# GALIAR LURRINA

Testua: Lison d'Andréa
Marrazkiak: Federico Mancuso




BAINA... BAINA, HAINBESTE UPEL BETETZEKO... INGURUKO MIHURA GUZTIA BILDU BEHARKO DA!
HOR KONPON, GALIARRA! ASTE BETE BARRU JAUREGIAN NAHI DITUT UPEL HORIEK! BADAKIZU NOLA ESAN OHI DEN: UPELETIK KANPO MIHURA...
... MERKATARIAREN KIRATSA ZIRKURA! LEHOIENTZAT LUXUZKO USAINA...
ZURE ERROMATARRA BURUTIK JOTA DAGO!
KAR! KAR! ZEIN DA LUTETXAKURTARRAREN KEZKA? ZUHAITZAK ALA NAGUSI INOZOA??
TXAKURTXO GAIXOA, ILE-BOLA ZORRITSUA!
ZORRITSUA?!
GRR! IRRIBARRE EZAGUN HORI EZABATUKO DIZUT, MONALISA!


MONALISA, NIRE... NIRE PRINTZESA!
UAU!
UAU!
BITAMINE, ZATOZ HONA!
MIAUUU!
ZAKUR AUSARTAK, ZATOZTE! HARRAPA DEZAGUN LOTSAGALDU HORI!
BAINA... BAINA NIRE ANAIAREN TXAKURRA DA-ETA!... BITAMINE BETI INDARTSU!
UAU!
UAU!


ZAKURREK HARRAPATU EGINGO NAUTE! EZ BADA, BEHINTZAT, KOLPEAN...
?
**ARRAIOA!!** ZEIN IZAN DA LUGDUNUMGO LUKAINKA...
DANBA!
OO!
NOLATAN ZU HEMEN? A ZE ZORTEA, KOLPEAN!
LAGUNDU, MENDERAKAITZAK! ZAKURRAK NIRE ATZETIK DABILTZA!
TXAKURTXO TRIXTEAK! ERRUKIRIK EZ, ZAKUR AUSARTAK! **ERASORA!**


GAUR KROKETA-ERRAZIO BIKOITZA! EKIN!
HASTEKO, KROKETA NIK BIHURTUKO ZAITUZTET! JE! JE!
?!
DINBI!
ETXERA LAGUNDUKO DIZUGU, BITAMINE?
MONALISARI EGINDAKOAREN ONDOREN, ERROMATARRAK ZAIN IZAN DITZAKET!
ADOS! ZATOZ GUREKIN, DENA KONTATUKO DIGUZU!


PIXKA BAT BERANDUAGO, EZKUTALEKUAN...
URRU URRU!
MIHURA GUZTIA?
HAU HONDAMENDIA! DRUIDEK BEHAR BEHARREZKOA DUTE! MIHURARIK GABE EZ DAGO EDABERIK!
ETA EZ DIEGU ERROMATARREI BASOKO HARITZEKIN JOLASEAN ARITZEN UTZIKO!
KONTUAK KONTU, BITAMINE, EA GUSTURA EGOTEN NAIZEN ZURE EZKUTALEKUAN!
EEE... EEE... ZAREN GURE EZKUTALEKUAN!
NORENGANDIK EZKUTATU NAHI DUZU, HARAKIX?
...


HEMEN BIZI AL ZARETE? EZ INTIMITATE, EZ BEHAR BEZALAKO LEIHO... EZ DUZUE MERITU MAKALA!
!?
ANDEREAK LUXU GEHIAGO BEHAR AL DU, BA?
ESAN DEZAGUN ZERA FALTA DUELA... EMAKUME BATEN UKITUA?
NOLA??
NIRE EMAKUME-UKITUA IKUSI NAHI AL DU, ANDERE HANDIUSTE PINPIRINAK?
EZ ZARA HEMEN LUZAZ GERATUKO, BITAMINE... AZKAR IBILI BEHAR DUGU!
USTE DUT BADAKIDALA NOLA SALBATU ZURE NAGUSIA ETA MIHURA...
AMNESIX NIRE NAGUSIA BASORA JOAN DA MIHURA BILA. ZU-HUEK LASAI ERABILI HAREN PERTZA!

# Idefix eta menderakaitzen 3 istorio:




7303691
ISBN: 978-84-696-4405-8
9 788469 644058